

KIROL DENBORALDIA

IZENA EMATEKO ARAUDIA

1. Abonatuak kirol ikastaroetan izen emate eta berritzeak salmenta makina edo Udalaren Kirol Saileko bulego birtualaren bitartez egin beharko dute. (Aurretik web orrian erregistratu beharra izango da). Ez abonatuak, aldiz, kiroldegiko harreraren bete beharko dute dagokion inprimakia
2. Udalaren Kirol Sailak ikastaroak eten edo ezabatu ahal izango ditu, eskariak ez badu justifikatzen ikastaro horiek egiten jarraitzea.
3. Ikastaroetako prezioak abonatuentzako prezioak dira (Bermeoko eta Urdaibai KTX dutenentzako); abonatuak ez direnek, publikatutako prezioen bikoitza ordaindu beharko dute
4. Berritzeak automatikoki egingo dira helbideratutako ordainketa aukeratzen dutenentzat, ekainerarte, hori barne, eta kobraketa, hileko lehen astean egingo da
5. Banku – txartelarekin ordaintzea aukeratzen dutenek aurreko hilabeteko 22a baino lehen berritu eta ordaindu beharko dute ikastaroa
6. Helbideratu gabekoen kasuan, berritze epearen barruan ez ordaintzeak, dagokion ikastaroan baja izatea eragingo du, plaza gordeteko inolako eskubiderik gabe
7. ALTAK / BAJAK
Ikastaroetan izena emanda dutenek, jarduneko ikastaro-egile izaten jarraituko dute denboraldi osoan, ofizialki baja eskatzen ez duten bitartean. Behin eta ikastaroak hasi, baja eman nahi den aurreko hilaren 22a baino lehen eskatu beharko Bermeo Kirolak app-etik, [Kirol Saileko web orritik](#) edo kiroldegiko salmenta makinetik,

